

txoritxoari mokoka

Eivissa

M6 kateak tarteka igandetan zabalitzen duen *Capital* saioan aurkitu dut asteko elikadura; besteak beste, uda Eivissan pasatzen dutenak zituzten aipagai, eta bere inguruan bizi diren marrazoak. Bertakoak herria saldu ondoren ezin bizia; egia esan, ez dira gehiago bere herria: lurak, etxeak, denda asko eta asko arrotzen eskuetan, eta besteak, udatiarrak hain zuzen, gau eta egun festa egiten, bertako gehienak lekuko. Egutero milioiak eta milioiak xahutuak dira ostatuetan eta modako dendetan, askoren kalterako



EFE
Eivissako irudi bat.

Xarlo Etchezaharreta

eta guti batzuen onerako, beti bezala. Aspaldian hor kokatua dagon frantziar batek zioenaren arabera: «...Lur honek arima galdua dauka, eta guk galdu dugu hemen aurkitu genuen bakea». Urte osoan izerdiaren ekoizpena gazte arruntak (batzuk ez hain gazteak) zein erraz xahutzen duten ez deuskerietan, harritzekoa da. Beste batzuek, berriz, diru hori nondik atera duten ez jakitea hobeto, ez haserretzeko. Gauza bat da diruari josia ez izatea, eta beste bat horrelakoak egitea, munduan zer pasatzen den ikusita.

Mundu honek badauka zerbait ulertzen ez dudana: Hau ote da oraingo bizi klasea? Ondo ez doa... edo arrunt zaharkitua naiz!

LABURRAREN

Marrazki maratoia goizero eta bazkalostero ETB1 katean

Goizeko 08:45ean hasi eta 13:55 bitartean haur programazioa izango da uda honetan ETB1en. Astegunetan honako marrazkiak emango dituzte: *Rocky eta Bullwinkle*, *Pingu*, *Simsala Grimm*, *Rebot*, *Sylvan*, *Cliff Hanger*, *Bentako mamuak* eta abar. Arratsaldeko 15:20ean, *Shin Chan* arrakastatsua etorriko da, eta ondoren, *Sheena* ikus ahal izango da. Asteburuetan *Altza porru!* saioko atal zaharrak errepikatuko dituzte.

Umorea, telesail berriak eta lehiaketak uda honetan A3 katean


Udako programazioa bihar hasiko da A3 kate pribatuan, Mar Saurak eta Bertin Osborne aurkeztutako *Noches de verano* saioarekin. Uztailearen 15etik aurrera, Antonio Hidakok *Sabor a verano* saioa gidatuko du egutero. Igandetan, berriz, *The Simpson* marrazki bizidunen 13. denboraldia eskainiko dute. Asteburuetan, *Roswell* telesail berria ikusteko aukera izango da. Esther Arroyok, era berean, *Videos, Videos* saioa aurkeztuko du.

T5 kateak 'El legado' lehiaketa estreinatuko du astelehenean

Asteleheneetik ostiralera T5 kateak *El legado* lehiaketa emango du datorren astetik aurrera (19:45ean). Roberto Kamphoff kanariarra izango da aurkezlea, eta ironia eta umore ugari izango da. Saio bakoitzean hamar lehiakide egongo dira, eta banan-banan kanporatzen joango dira. Kultura orokorreko galderak erantzuten abilenak diren biak finalera pasako dira. Finalistak bote bat irabazteko aukera izango du.

ETB1. Asteleheneetik ostiralera '1 bitan' saioa eskainiko dute udan, arratsaldeko 18:15ean

Erreportaia onenak gogoratuz



EGUNKARIA
Xabier Leteren *Mintzoaren arnasa* saioko bertsoak eskuratuko dituzte 1 bitan saiorako.

ETBkoez gain, Britainiako Entziklopediako zientzia erreportaia laburrak emango dituzte

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Euskal Telebistako hainbat saiotan erreportaia interesgarriak egiten dituzte denboraldian zehar. Horietako onenak uda honetan ikusi ahal izango dira, Joxe Mari Argoitiak zuzendutako *1 bitan* saioan. Astegunetan, 18:15ean eskainiko dute programa, irailaren 6a arte.

«Ikus-entzule askok urtean zehar ematen diren zenbait saio ikusteko aukerarik ez du izaten. Irailetik ekainera eskaini diren erreportaia interesgarriak bilduko ditugu *1 bitan* saioan», dio Argoitia ondarrutarrak.

Teknopolis, *Ikusgela*, *Sautrela* eta beste zenbait saiotako edukia eskuratuko dituzte uztaile eta abuztuan. Britainiako Entziklopediako zientzia erreportaia laburrak ere emango dituzte. «*Ikusgela*-n, adibidez, ikasketa zentroei buruzko erreportaia daude. Eta gazte gehienek ezin izan dituzte ikusi. Aukera ona da honakoa horiek errepikatze», dio *1 bitan* saioko arduradunak. «Udak lasaia den zerbait eskatzen duenez, tarteetan musika sartu dugu».

Programan bertsoak ere entzuteko aukera izango dela azaldu digu Argoitiak. «Euskal

Herriko Bertsolari Txapelketako finala oso trinkoa izan zen. Bertso onenak joango gara tarteak, dokumentalen artean». Era berean, Xabier Letek egin zuen *Mintzoaren arnasa* saioko atalak jarriko dituzte. Adibidez, datorren astean Xenpelarren bertsoak izango dira entzungai.

Egutero kotasunarekin bat egiteko musika

Udako zein astetan dauden arabera, bestalde, hainbat bideo eskainiko dituzte. «San Fermin jaietan jotak jarriko dira, Jazaldiak direnean jazz musika, Musika Hamabostaldia denean musika klasikoa... baina zati txikiak betiere», esan du Argoitiak.

Programaren funtsa eta filo-

ESANAK

JOXE MARI ARGOITIA

(ETBko '1 Bitan' saioko zuzendaria)

«Irailetik ekainera ETBn eskainitako erreportaia interesgarrienak bildu ditugu programan»

«Udak lasaia den zerbait eskatzen duenez, tarteetan musika sartuko dugu»

«Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean izan ziren unerik onenak ere eskainiko ditugu»

«Ikus-entzule kopurua txikiagoa da udan, eta inbertsioa egokitu egiten da; munduko telebista guztiek egiten dituzte antzekoak»

sofia zein den argitu digu arduradunak: «Ikusleok *zapping* egiten dugu telekomandoa dugun bitartean. Saio bakoitzean hamabost bat eduki daude, eta tartetxo batean gustura egoteko aukera ematen du *1 Bitan*ek». Argoitiarekin batera Idoia Gainberri, Joana Mari Otaegi eta Jorge Herrero daude saioan lanean. Halako programak egitea nahiko merkea dela aitortzen du Argoitiak. «Ikus-entzule kopurua murriztu egiten da udan, eta inbertsioa ere egokitu egiten da. Munduko telebista guztiek egiten dituzte antzeko saioak».